

Bilboko Arte Eder museoa "Begiz jotako koloreak"

Gauza bakar bat nahi dut: jendearen bihotzak alaitu, haren begiak eta arimak argiz betez. Nire lanek ez dute beste helbururik. Argi mintzatu zen Joaquim Mir bere obraz, ezin garbiago, Francesc Miralles kritikariaren arabera. Artista katalanari buruzko erakusketa antologikoa atondu du, urteetako ikerketa lanaren emaitza modura. Joaquim Mirren (Bartzelona, 1873-1940) ibilbideari argia ematen ahalegindu da, artistaren memoria eta obra berreskuratuta. Bartzelonan aurkeztu ondoren, Bilboko Arte Eder museoan jarri dituzte ikusgai Mirren margolanak: 80 bat obra.

Margolari koloretsua izan zen Mir. Kolorearen indarra etengabea da artistaren obran. Kolorea lehenetsi baitzuen, gaia eta formaren gainetik. Koloreek ematen zioten atentzioa, eta haiei erreparatuta garatu zuen obraren gehiena. Garai hartako pintoreak ez bezala, Mir ez zen sekula Erroman izan, ezta Parisen ere. Ez zuen horretarako interesik izan, Mirallesen arabera. Ez zitzaion interesatzen ez gaia, ez forma, ez teknika, ez beste ezer. Koloreak bakarrik zuen garrantzia Mirrentzat. Horregatik, berdin zion Parisen pintatu edo Bartzelonan. Koloreak sorterrian ere bazituen, ez zuen zertan kanpora joan, zehaztu du Mirallosek.

Etxeko lorategia 200 aldiz pintatu zuen, kontatu du komisarioak, baina obra bakoitzean molde eta kolore desberdinez ageri dira zuhaitz eta landareak. Lorategiko koloreak ikertu zituen Mirrek, orduak pasatu ahala sorrarazten zituzten argiak. Teoria batetik abiatuta pintatzeak ez zuen interesik Mirrentzat, aurrean zuen paisaiak eragindako ikuskarian oin hartuta abiatzen zuen obra, azaldu du Mirallosek.

Hasiera iraultzailea

Kritikarien iritziak gorabehera, Mirrek arrakasta lortu zuen Herrialde Katalanetan. Burgesen pintorea izan zen, denek zuten Mirren koadroren bat salan. Haatik, nazioartean ez zuen tarte bat egitea lortu. Erromara eta Parisera joan ziren margolariak bezain ona da Mir, hobe ez bada. Artista horiek atzerrian lortu zuten ospea. Kanpora joan izan balitz, Mirrek ere lor zezakeela sinetsita dago Miralles.

Bartzelonan egin zituen lehen urratsak. Arte Ederretako eskolan izena eman zuen, baina bizpahiru hilabeteren ondoren, utzi eta bere kabuz ikastea erabaki zuen, joera eta korrante oro bazter utzita, margolari senari soilik jarraituta. Bartzelonako aldirietan ibiltzen zen pintatzen. Horregatik, garai hartako lanak erabat iraultzaileak direla uste du Mirallosek, halako gaiak hautatzea onartezina zen XIX. mende bukaeran. Azafraia zeritzon taldeko partaide izan zen, Isidre Nonell, Juli Vallmitjana eta beste margolari batzuekin batera.

Azafraiairen taldea deitzen zieten, hori-gorri-kobre koloreak gailentzen zirelako haien lanetan, eta kolore horiek ohiz kanpokoak ziren garai hartan. Paisaia berrien bila, Mallorcara (Herrialde Katalanak) joan zen Mir 1900. urtean. Labarrak eta hondartzak pintatzeari ekin zion, koloreekiko sentiberatasun berezia garatuz. Haitzetan zebilela, erori eta kolpe handia hartu zuen buruan. Horren ondorioz, Reusko ospitale psikiatrikoan urte bi eman zituen. Nortasun handiko gizona zen, uste sendoak zituen, baina oreka gutxi zuen, muga zebilen beti, eta kolpeak eragin larriak izan zituen harengan, berez ahula zuen oreka kaltetzeraino.

1904tik 1906ra izan zen Kataluniako mediku etxean. Orduan ere pintatzen jarraitu zuen, ez zion inoiz utzi margotzeari. Camp de Tarragonara joan zen handik irtendakoan. Kolore leherketa egin zuen herri hartan eman zituen urteetan, eta fauvismora gerturatu zen, oraindik existitzen ez zenean. Mollet del Vallesen garatu zuen gainerako artistengandik bereizi zuen estiloa. Kataluniako herri hartan sortu zituen obrarik esanguratsuenak, 1914tik 1921era.

Amaiera irrealista

Ikuspegi aurrerakoia zuten kritikariek goratu egin zituzten Mirrek Mallorcan, Camp de Tarragonan nahiz Mollet del Vallesen sortutako lanak. Aldiz, ikuspegi atzerakoi samarra zutenek gogor kritikatu zituzten, azaldu du Mirallosek.

1922an Vilanova i la Geltrura ezkondu zen Maria Estalellarekin. Bazuen ospea, obra ugari saltzen zituen eta inork baino garestiago. Alabaina, inoizko obrarik errealistenak egiteari ekin zion Vilanova i la Geltrun. Figuraziorik gardenera itzuli zen, inpresionismoa eta fauvismoa atzean utzita. Kritikariek rolak aldatu zituzten orduan: tradizionalistenek Mirren jokabidea txalotzen zuten bitartean, berritzeko eta harritzeko gaitasuna galtzen hasia zela zioten aurrerakoienek.

Nolanahi ere, begietatik abiatuta, Mirrek obra oparo, ausart eta berritzailea sortu zuela defenditu du Mirallosek. Ez zen inoiz joera batera lerratu, bere kabuz ibili zen beti.

ERAKUSKETA

Izenburua: ' Joaquim Mir. Antologikoa ' .

Lekua: Arte Eder museoa (Bilbo).

Noiz arte: uztailaren 26ra arte.

Irune Berro.